



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

### **TXOSTENA: MAHASTIAREN EGOERA ARABAKO ERRIOXAN, 2016/08/03**

Eguraldiari dagokionez, uztaileko azken eta abuztuko lehen egunetan, eguneko tenperaturak urtaroko —udako— berezkoak izan dira, alegia, bero egin du. Gauak, ordea, freskoak izan dira. Arabako Errioxan, ekaitz bakan eta oso lokalizaturen bat izan da, baina ez du ia euririk ekarri. Egoera horrekin, mahatsondoak sufritzen hasi dira sakonera txikiena eta urik gutxien duten eta lehorte zantzuak dituzten lurzatietan. Ureztatze aukera duten mahastizainak mahastiak ureztatzen ari dira, laboreak duen ur beharrari erantzuteko eta, hartara, estresa arintzeko.

Kolore aldaketa ez da ia hasi oraindik. Arabako Errioxako ekialderen dauden lurzati batzuetan (Oion, Meano, Lapuebla) eta ekoizpen mugatuagoak dituzten eta ur arazorik ez duten lurzatietan bakarrik hasi dira aleak kolorea hartzen; gainerako lurzatietan, oraindik egun batzuk beharko dira. Hortaz, 10-15 eguneko atzerapena izango da azken urteotakoaren aldean, zeinetan uzta goiztiarragoa izan baitzen. Horrela jarraituz gero, espero izatekoa da mahats bilketa (tempranilloarena) Errioxan normalean hasi ohi den garaian hasiko dela, hots, iraileko hirugarren astetik aurrera. Hala izango da, baldin baldintza meteorologikoak ez badira muturrekoak mahatsa heldu arte.

Mahastiak osasun egoera onean daude; ekoizpena ugaria da, eta uztailaren 20an harri erauntsia jasan zuten lurzatiak normaltasunez indarberritzen ari dira, mahats mordoetako eta hostoetako zauriak oro har lehortu baitira.

Ia ez da armiarma horiaren, trips intsektuen eta eltxo berdearen eraginik ikusten. Bigarren belaunaldiko sitsaren hegaldia ugaria da eta, beraz, mahastizainak tratamendua ematen ari dira, gomendio horixe eman baitugu.

Gaixotasunei dagokienez, oidioak edo zurinak presio egiten jarraitzen du eta, horrenbestez, komeni da tratamenduei eustea produktu bakoitzak ezartzen dituen epeetan. Ez da hala gertatzen mildiu edo gorrinarekin, gaur egungo baldintzek ez baitute laguntzen hura garatzen. Beraz, oraingoz, komeni da arreta oidiora bideratzea, bai eta botritisera ere, prebenitzeko asmoz.

Gogorarazi beharra dago oidioari edo botritisari aurea hartzeko egingo diren defoliazioak ezkutuen dauden alderdietan (iparraldea eta ekialdea) egin behar direla, eta betiere mahats mordoa erdi itzalean utzita, fotosintesi gelditzerik gerta ez dadin, horrek gero heltze desorekatua eragin baitezake.

Laburbilduz, mahatsondoak oso egoera onean daude, ekoizpen egokia dute eta ez dago nabarmentzeko moduko osasun arazo edo istripurik.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua